KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
18,1 g	8,5 g	3,5 g	3,5 g	-
%44	%47	%9	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Osagai guztiak egosten jarri, egosten direnean birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Olio bota eta pixka bat irakin. Ogi-pusketa txigortuekin lagun daiteke.





TXITXIRIO-KREMA

TXITXIRIO-KREMA




OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txitxirioak	70	55	Xehatua
Tipula	5	5	Xehatua
Porrua		7	Xehatua
Azenarioa		20	Xehatua
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 258 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
36,4 g	7,8 g	10,4 g	4,2 g	-
%57	%28	%15	-	-

PRESTAKETA

Txitxirioak azenarioarekin, porruarekin eta tipularekin egosten jarriko ditugu. Dena egositakoan, birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Bukaeran, oliba-olioa bota.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





PORRU-PATATA KREMA

PORRU-PATATA KREMA




OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Porrua	115	100	Xehatua
Patata	50	40	Xehatua
Olioa	5	5	Xehatua

BALIO NUTRITIBOA: 228 KALORIA				
KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
39,5 g	5,7 g	4,8 g	3,8 g	-
%69	%22	%9	-	-

PRESTAKETA

Ura egosten jarri eta irakiten ari denean porrua bota uretara. 10 minutu igarotakoan patata bota, birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Irakinaldi bat eman eta olio gordina bota.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





ILAR-KREMA


ILAR-KREMA



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Ilarrak	70	70	Xehatua
Azenarioa	20	17	Xehatua
Porrua	12	10	Xehatua
Olioa	5	5	Xehatua
Patata-purea	30	30	Xehatua

BALIO NUTRITIBOA: 213 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
34,7 g	5,5 g	6 g	4,9 g	-
%65	%23	%12	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Osagai guztiak egosten jarri, kendu egositako ur pixka bat eta oliba-olioa bota. Iragazki txinatarretik pasa eta azkenik pixka bat irakin.





BABARRUN ZURIA


BABARRUN ZURIA



OSAGIAIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Babarrunak	60	60	Zuria
Azenarioa	5	5	Brunoise ert.
Patata	2	2	Karratu txik.
Porrua	5	2	Brunoise txik.
Tipula	5	5	Brunoise txik.
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 240 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
37,5 g	4,9 g	11,6 g	4,5 g	-
%62	%18	%20	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Babarrunak azenarioarekin, porruarekin eta patatarekin egosten jarriko ditugu. Gutxi gorabehera, babarrunen halako 4 parte ur behar dira. Dena egositakoan, oliba-olio gordina bota.





DILISTAK



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Dilistak	70	60	Pardina
Azenarioa	25	10	Brunoise ert.
Patata	25	10	Karratu txik.
Tipula	25	5	Brunoise txik.
Olio	10	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 262 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
36,9 g	6,1 g	18,8 g	2,8 g	-
%54	%21	%23	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Egosi dilistak eta azenarioak, izanik dilistak/ura proportzioa 1/5ekoa. Dilistak erdi egosita daudenean, patata bota eta bukaeran oliba-olioa gordinik.





TXITXIRIOAK ESPINAKEKIN

TXITXIRIOAK ESPINAKEKIN




OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txitxirioak	70	55	Txikia
Espinakak	120	100	Brunoise
Olio	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 368 KALORIA				
KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
45,9 g	8,8 g	14,9 g	4,2 g	-
%57	%24	%19	-	-

PRESTAKETA

Egosi txitxirioak izanik txitxirioak/ura proportzioa 1/5ekoa. Egositakoan gehitu espinakak eta utzi dena egosten 3 minutuz. Bukaeran, oliba-olioa bota.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





LEKAK PATATEKIN

LEKAK PATATEKIN



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Lekak	130	130	Leka laua
Patata	80	80	Brunoise han.
Baratxuria	5	5	Laminatuta
Olioa	5	5	Oliba


BALIO NUTRITIBOA: 172 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
26 g	5,3 g	5,1 g	5,6 g	-
%60	%28	%12	-	-

PRESTAKETA

Jarri egosten ur ugari. Irakite-puntuan dagoenean, bota barrura lekak eta patatak. Egosita daudenean, xukatu, baratxuriarekin frijituki bat egin gorritzen utzi gabe eta gainetik bota.

Oso garrantzitsua da baratxuria asko ez frijitzea, zeren bere konposizio kimikoa aldatzen baita eta zapore gogorra hartzeaz gain, toxikoa da.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





BARAZKI-PANATXEA


BARAZKI-PANATXEA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Zerbak	80	80	Zatitua
Azenarioa	40	40	Brunoise
Lekak	40	40	Lauak
Zainzuri-zurtoinak	20	20	Zurtoinak
Ilarrak	40	40	Izoztuak
Patata	50	50	Karratua
Olio	5	5	Oliba gordina

BALIO NUTRITIBOA: 181 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
25,4 g	5,9 g	6,4 g	5,6 g	-
%56	%29	%15	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Ur asko jarri irakiten. Irakite-puntuari dagoenean bota azenarioa eta ilarrak. Berriro ere irakiten dagoenean, eta bost minutu igaro ondoren, gainerako barazki guztiak bota. Egosita daudenean, ondo xukatu eta gehitu oliba-olio gordina.





BARAZKI-MENESTRA


BARAZKI-MENESTRA



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Zerbak	100	80	Brunoise hand.
Azenarioa	35	35	Brunoise hand.
Lekak	35	35	Laua
Ilarrak	30	30	Izoztua
Zainzuriak	15	15	Zurtoinak
Olioia	5	5	Oliba gordina
Urdaiazpiko egosia	4	4	Brunoise txik.
Patata	55	55	Brunoise txik.

BALIO NUTRITIBOA: 180 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	F. LANDARE-ZUNTZ	KOLESTEROLA
23,8 g	6,7 g	6,4 g	4,7 g	3,6 mg
%53	%33	%14	-	-



PRESTAKETA

Ur asko jarri irakiten. Irakite-puntuari dagoenean azenarioa eta ilarrak bota, berriro ere irakiten hasten denean eta 5 minutu igaro ondoren, gainerako barazki guztiak bota. Egosita daudenean, ondo xukatu eta gehitu oliba-olioa gordina.





PORRUSALDA


PORRUSALDA



OSAGAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Porrua	140	110	Zatia
Patata	90	90	Karratu hand.
Azenarioa	80	35	Karratu txik.
Olio	5	5	Oliba
Baratzuria	1	1	Laminak

BALIO NUTRITIBOA: 184 KALORIA


KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
28,8 g	5,6 g	4,5 g	6,2 g	-
%62	%28	%10	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Kazola batean ura jarri eta irakinarazi. Segidan, azenarioa bota. Berririo irakiten duenean, gehitu patatak eta porrua. Guztia egosita dagoenean, frijitu su oso txikian baratzuria oliba-oliotan eta kontu handia izan gorritu ez dadin, eta ondoren barazkiei gehituko diogu. Plater honek saltsa dezente izan behar du.





ESPINAKAK URDAIAZPIKOAREKIN

ESPINAKAK URDAIAZPIKO- AREKIN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Espinakak	300	300	Brunoise fina
Urdaiazpikoa	20	20	Brunoise fina
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 175 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
9,6 g	10,3 g	20,1 g	0 g	17,8 mg
%22	%53	%25	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Espinakak ur askorekin egosi eta ondoren ondo xukatu. Bestalde, zartagin batean oliba-olioa jarri eta urdaiazpikoa pixka bat salteatu. Azkenik, espinakak bota ondo salteatzeko.





PATATAK SALTSA BERDEAN


PATATAK SALTSA BERDEAN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Patata	160	150	Gisatua
Ilarrak	25	25	Izoztuak
Tipula	12	10	Brunoise mehea
Baratxuria	3	3	Brunoise mehea
Piper berdea	10	10	Brunoise mehea
Olio	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 201 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
33,7 g	5,3 g	4,7 g	4,5 g	-
%37	%23	%10	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Baratxuria oliba-oliotan salteatu. Jarraian patatak bota eta sueztitu. Sueztituta daudenean, salda bota eta 20 minutuz egosten utzi. Eginak daudenean gainetik perrexila bota.





ARROZA BARAZKIEKIN



ARROZA BARAZKIEKIN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Arroza	50	50	Zuria
Barrengorriak	30	30	Osoak
Azenarioa	50	50	Brunoise
Lekak	75	75	Borobila
Kalabazina	70	70	Izoztuak
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 309 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
54,7 g	6,4 g	8 g	5,8 g	-
%71	%19	%10	-	-



PRESTAKETA

Zartagin batean oliba-olioa jarri eta baratxuria frijitzen dugu. Kolore hartu baino lehen, bota barazkiak: barrengorriak, lekak, azenarioa eta kalabazina. Behin eginda egonez gero, bota arroza eta sueztitu. Ondoren, salda gehitu eta egosi 20 minutuz.





MARINEL-PAELLA


MARINEL-PAELLA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Arroza	50	50	Zuria
Ganbak	25	25	Arrozetarako
Muskuiluak	15	15	Garbiak
Txipiroiak	25	20	Zatiak
Leka samurrak	15	15	Brunoise mehea
Ilarrak	25	25	Izoztuak
Piperra	20	20	Brunoise mehea
Tipula	10	10	Brunoise mehea
Baratxuria	2	2	Brunoise mehea
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 299 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
45,1 g	6,8 g	14,2 g	2,3 g	30 mg
%61	%20	%19	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Barazki guztiak sueztitzen jarri. Jarraian, puskatan zatitutako txipiroiak bota eta sueztitu. Beste kazola batean, salteatu arroza oliba-oliotan, bota arrain-salda edo hori eduki ezean ura (arroz-bolumenaren halako bi) eta irakinarazi. 15 minutu igaro ostean, txirlak, ganbak eta muskuiluak bota, beste bost minutuz egosten utziz. Une horretan salda gehiago botako dugu beharko balitz. Bost minutu igaro ostean, sutatik kendu, estali eta bost minutuz pausatzen utzi.





MAKARROIAK TOMATEAREKIN

MAKARROIAK TOMATEAREKIN




OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Makarroia	75	50	Makarroia fina
Tomatea	100	80	Xehatua
Tipula	35	20	Xehatua
Urdaiazpiko egosia	10	10	Zatiak
Oltoa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 295 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
44,7 g	8,3 g	10,6 g	1,2 g	8,9 mg
%61	%25	%14	-	-

PRESTAKETA

Ura irakiten jarri, olio-tanta batzuekin. Irakite-puntu dagoenean, pasta bota eta 7 minutuz egosten utzi. "Al dente" geratu behar du. Horrez gain, tipula sueztitzen jarri eta samurra dagoenean, tomate bota eta 10 minutuz egosten utzi. Birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Saltsa pastaren gainetik bota, eta ondoren urdaiazpiko egosia salteatuta eta gazta arraspatua bota.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





PASTA-ENTSALADA


PASTA-ENTSALADA



OSAGIAIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Letxuga	100	100	Zatiak
Tomatea	40	40	Xerra erdiak
Pasta	40	40	Ertaina
Olibak	15	15	Beltzak
Olio	10	10	Oliba
Ozpina	3	3	Txuria

BALIO NUTRITIBOA: 370 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
36,3 g	18,7 g	14,3 g	2,9 g	16,5 mg
%40	%45	%15	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Ebaki entsaladako osagaiak era honetan:

Uraza: Puskatan

Tomatea: Ilargi-erdi finetan

Tipula: Julianan

Olibak: Beltzak

Ozpin-olioa: Oliba-olioa eta ardo zuriaren ozpina.





PATATA-ARRAUTZOPILA

PATATA-ARRAUTZOPILA




OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Patata	150	150	Karratu mehea
Arrautzak	110	110	Irabiatu pasteurizatua
Olio	10	10	Ekilorea

BALIO NUTRITIBOA: 396 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
29,2 g	23,3 g	17,3 g	3 g	554 mg
%30	%53	%17	-	-

PRESTAKETA

Jarri zartagin batean olio dezente eta su oso txikian jarri patata egosten olio horretan. Patata biguna dagoenean xukatu ondo eta irabiatutako arrautzan bota. Ondoren arrautzopila egin, nahi den bezala.





ARRAUTZA BARRENGORRI ETA KREMAREKIN

ARRAUTZAK BARRENGORRI ETA KREMA- REKIN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Arrautzak	110	110	Egosiak, ertainak
Barrengorriak	15	15	Xerratuta
Oliba-olioa	5	5	Urtua
Esnea	50	50	Osoa
Irina	5	5	Fina

BALIO NUTRITIBOA: 246 KALORIA


KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
6,8 g	17,1 g	16,2 g	0,6 g	554,5 mg
%11	%63	%26	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA


Arrautzak 12 minutuz egosi, zuritu eta erditik moztu. Beste kazola batean, barrengorriak salteatu eta gorde geroko. Zartagin batean, irina desegin eta jarraian esne beroa bota, hori guztia 10 minutuz egosten utziz. Barrengorriak bota 2 minutuz egosten uzteko eta ondoren, arrautzak napatu.





ARRAUTZA EGOSIAK PISTOAREKIN


ARRAUTZA EGOSIAK PISTOAREKIN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Arrautzak	120	110	Egosiak, ertainak
Kalabazina	75	25	Brunoise
Piperra	25	10	Brunoise
Tomatea	50	50	Brunoise
Tipula	25	10	Brunoise
Olioa	10	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 240 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
5,7 g	17,3 g	15,3 g	0,5 g	554,4 mg
%10	%65	%25	-	-



PRESTAKETA

Arrautzak 12 minutuz egosi, zuritu eta gerorako utzi. Horrez gain, sueztitu tipula, piper gorria eta berdea, eta kalabazina. Guztia egina dagoenean tomatea bota eta egiten utzi. Arrautzak ebaki eta pistoarekin napatu.





TXIPIROIAK TIPULAREKIN


TXIPIROIAK TIPULAREKIN



OSAGIAIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txipiroiak	220	220	Zatia
Tipula	35	30	Xehatua
Porrua	35	30	Xehatua
Tomatea	20	20	Xehatua
Azenarioa	12	10	Xehatua
Olioia	4	4	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 254 KALORIA


KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
8,4 g	7,2 g	39 g	1,5 g	-
%13	%26	%61	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Tipula sueztitu kolore iluna izan arte; komeni da ardo beltz pixka bat botatzea. Sueztituta dagoenean, arrain-salda bota, birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Bestalde, ipini zartagin batean baratxuri xehatua eta kolorea hartu baino lehen txipiroiak bota salteatzeko. Segidan, tipula-saltsa eta tomate-saltsaren koilarakadatxo bat bota eta samurrak egon arte egosten utzi.





LEGATZA LABEAN ERRETA BARAZKIEKIN


LEGATZA LABEAN ERRETA BARAZKIEKIN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Legatza	180	180	Xerratan
Lekak	15	15	Laua
Berenjena	15	15	Brunoise han.
Kalabazina	20	20	Brunoise han.
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 216 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
3,1 g	8,7 g	31,4 g	1,0 g	90 mg
%6	%36	%58	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Jarri arraina aldez aurretik oliba-olioarekin igurtzitako gastronorm erretilueta eta labean erre 8 minutuz 150 °C-tan. Beste kazola batean, jarri oliba-olioa eta gehitu xerratutako baratxuriak. Gorritu baino lehen barazkiak bota eta salteatu.





LEGATZA SALTSA BERDEAN


LEGATZA SALTSA BERDEAN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Legatza	200	180	Solomoak
Ilarrak	15	15	Izoztuak
Zainzuriak	15	15	Zurtoinak
Baratxuria	5	5	Xehatua
Irina	3	3	Fina
Olioia	5	5	Oliba
Perrexila	2	2	Mehe xehatua

BALIO NUTRITIBOA: 225 KALORIA


KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
4,6 g	8,7 g	31,9 g	1,5 g	90 mg
%8	%35	%57	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Zartagin batean oliba-olioa jarri, baratxuria bota eta segidan irina, sueztitu eta arrain-salda bota eta bost minutuz egosten utzi. Kazola batean jarri legatz puskak, gainetik salda, ilarrak eta zainzuri-zurtoinak bota, eta guztia bost minutuz egos dadila. Egina dagoenean, txiki-txiki egindako perrexila bota gainetik.





LEGATZA AMERIKAR ERARA


LEGATZA AMERIKAR ERARA



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Legatza	185	150	Solomoa
Ganbak	15	10	Xehatua
Tipula	20	20	Xehatua
Tomatea	40	40	Xehatua
Porrua	20	20	Xehatua
Azenarioa	20	20	Xehatua
Olioia	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 225 KALORIA


KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
7,5 g	8,5 g	29,4 g	1,4 g	90 mg
%14	%34	%52	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Jarri sueztitzen tipula, porrua eta azenarioa oliba-oliotan. Bigunak daudenean tomate-saltsa bota, utzi egosten 5 minutuz eta gehitu arrain-salda pixka bat. Birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Beste kazola batean, salteatu ganbak ondo gorritu arte, arrain-salda bota, irakinarazi, birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Prestatutakoa aurrez egindako barazkiei bota eta guztiak bost minutuz irakin dezala. Legatza ondo egina egongo da labean bost minutuz 180 °C-tan erretzen badugu edo saltsan jarri eta irakinaldi bat eman ondoren bost minutuz mantentzen badugu.





LEGATZA LABEAN ERRETA

LEGATZA LABEAN ERRETA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Legatza	250	180	Xerra
Baratzuria	5	5	Laminak
Olio	10	10	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 252 kALORIA				
KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
1,4 g	13,6 g	30,9 g	0,01 g	90 mg
%3	%48	%49	-	-

PRESTAKETA

Jarri legatz-trontzoak alde z aurretik oliba-olioarekin igurtzitako gastrorn erretiluetan, eta labean erre 8 minutuz 150 °C-tan.

Beste kazola batean, jarri oliba-olioa eta gehitu xerratutako baratzuriak. Gorritu baino lehen sutatik kendu eta arrainaren gainean bota, baita perrexil pixka bat ere.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK



ARRAUTZA-IRINETAN PASATUTAKO LEGATZA



ARRAUTZA- IRINETAN PASATUTAKO LEGATZA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Legatza	180	150	Solomoak
Arrautza	-	-	Irabiatura
Olio	-	-	Ekilorea
Irina	-	-	Fina

BALIO NUTRITIBOA: 270 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
7,6 g	14,3 g	27,8 g	0,4 g	125,4 mg
%11	%48	%11	-	-



PRESTAKETA

Zartagin batean ekilore-olio dezente jarri, legatz puskak pasatu irinetatik aurrea eta arrautzetatik ondoren, eta su ertainean frijitu, geruzak kolore gorri argia izan arte eginez. Horrela, arrautza-irina ere barrutik egina egongo da. Limoi zati batekin laguntzen da.





ARRAINA LURRUNETAN


ARRAINA LURRUNETAN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Legatza	100	80	Medailoia
Arrautza	35	7	Laminak
Azenarioa	-	10	Brunoise txik.
Lekak	35	10	Zurtoinak
Ilarrak	25	10	Xehetua
Oliboa	10	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 139 KALORIA


KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
2,8 g	7,4 g	15,3 g	1,1 g	75,3 mg
%8	%48	%44	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Ipini arrain-medailoia aldez aurretik oliba-olioarekin igurtzitako gastronom erretiluetan. Beste kazola batean jarri oliba-olioa eta fin-fin xehatutako baratxuria. Kolorea hartzen hasitakoan, gehitu irina eta arrain-salda. Egina dagoenean, gainetik perrexila bota eta arraina jarri dugun erretiluan ipini. Ondoren labean erre 5 minutuz 150 °C-tan.





KRABARROKA BARAZKIEKIN


KRABARROKA BARAZKIEKIN



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Krabarroka	160	160	Solomoak
Barrengorriak	20	20	Zuria
Tipula	25	25	Xehatua
Kalabazina	25	25	Xehatua
Espinakak	50	50	Xehatua
Olio	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 310 KALORIA


KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
9 g	15,6 g	36 g	1,2 g	112 mg
%14	%45	%46	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Jarri arraina alde z aurretik oliba-olioarekin igurtzitako gastronor erretilueta eta labean erre 8 minutuz 150°C-tan. Beste kazola batean, Brunoise finetan txikitutako barazkiak salteatu eta jarri barazkiak krabarrokaren bi xerren artean. Saltsa: espinakak zuritu, birrindu eta pasa txinatar iragazkitik. Ondoren, bexamel arinarekin loditu.





MARMITAKOA

MARMITAKOA



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Hegaluzea	100	80	Zatiak
Patata	100	100	Gisatua
Piper gorria	6	6	Brunoise
Tomatea	20	20	Brunoise
Tipula	10	10	Brunoise
Baratzuria	5	5	Brunoise
Olio	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 319 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
20,8 g	15,6 g	24 g	2,4 g	44 mg
%26	%44	%30	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Kazola batean jarri barazkiak sueztitzen oliba-oliotan. Samurra dagoenean, patata bota eta sueztitu. Segidan arrain-salda bota, edo hori ezean ura, eta 20 minutuz egosten utzi. Sutatik kendu baino hiru minutu lehenago atun puskak bota.





BAKAILAOA BIZKAIKO ERARA


BAKAILAOA BIZKAIKO ERARA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Bakailaoa	190	180	Solomoak
Tomatea	100	65	Xehatua
Tipula	40	20	Xehatua
Baratzuria	1	1	Xehatua
Piperra	15	2	Xehatua
Olioa	15	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 214 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
6 g	6,6 g	32,5 g	0,2 g	90 mg
%11	%28	%61	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Kazola batean olioa jarri eta tipula bota samurtu arte. Gero tomatea eta lukainka-piperrak bota eta 15 minutuz utzi. Birrintu eta txinatar iragazkitik pasa. Bestalde, bakailaoa markatu alde batetik, buelta eman eta gainetik saltsa bota. 5 minutuz egosten utzi.





AJOARRIERO BAKAILAOA

AJOARRIERO BAKAILAOA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Bakailaoa	60	60	Izpitua
Tomatea	30	28	Brunoise mehea
Piperra	15	12	Brunoise mehea
Tipula	18	15	Brunoise mehea
Patata	45	45	Brunoise
Baratzuria	3	3	Xerratua
Olio	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 150 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
12,4 g	5,7 g	12,2 g	1,1 g	30 mg
%33	%46	%21	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Jarri sueztitzen tipula, baratzuriak, eta piperrak oliba-oliotan. Eginak daudenean gehitu aldeztatik sueztitutako patata, ondoren tomatea eta bakailao-laminak, nahastura guztia 3 minutuz sueztituz. Gainera perrexila bota.





AMUARRAINA NAFARROAKO ERARA

AMUARRAINA NAFARROAKO ERARA




OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Amuarraina	200	150	Tripak kenduta
Serrano urdaiazpikoa	15	15	Xerra
Irina	3	3	Fina
Oliba	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 261 KALORIA				
KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
2,3 g	14,8 g	29,8 g	0,1 g	94,8 mg
%3	%51	%46	-	-

PRESTAKETA

Igurtzi ondo labeko plaka bat oliba-olioarekin, eta jarri bertan aurrez urdaiazpiko-xerra bat sartu diogun amuarraina. Igurtzi oliba-olioarekin eta bota gainetik ogi arraila. Labean sartu 7 minutuz 180 °C-tan.

SALTSA: Jarri sueztitzen tipula eta porrua , biguna dagoenean bota irina, 5 minutuz egiten utzi, gehitu arrain-salda, irakinarazi, birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Iragazi ondoren, bota limoi-zukua.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK



IZOKINA BARAZKIEKIN


IZOKINA BARAZKIEKIN



OSAGAIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Izokina	220	180	Solomoak
Kalabazina	30	12	Brunoise
Piperra	30	8	Brunoise
Tipula	20	20	Xehatua
Tomatea	25	20	Concassé
Limoia	5	3	Zukua
Irina	4	2	Fina
Olioia	10	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 385 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
5,9 g	26,8 g	30,0 g	0,5 g	126 mg
%6	%63	%31	-	-



PRESTAKETA

Izokina solomotan ebaki, oliba-olioarekin ondo igurtzi eta labean sartu 150 °C-tan zortzi minutuz. Izokinak barrutik puntu arrosakara badu hobe. Jarri sueztitzen tipularen, azenarioaren eta porruaren zati bat. Bigunak daudenean bota irina, sueztitu eta busti izokinaren hezurrekin egindako arrain-saldarekin. 10 minutuz egosten utzi. Birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Irakinarazi berriro eta limoi-zukua bota. Bestalde, jarri sueztitzen tipularen zati bat, kuiatxoa eta brunoise finetan ebakitako tomatea. Egina dagoenean, busti saltsarekin. Izokina platerean jarri eta pisto antzeko horrekin napatu.



MIHI-ARRAIN ARBELDONDUNA

MIHI-ARRAIN ARBENDOLDUNA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Mihi-arraina	170	170	Xerra
Arbendola	7	7	Xehatua
Ogi arraila	8	8	Arraila
Perrexila	1	1	Xehatua
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 232 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
5,1 g	10,6 g	29,2 g	1,7 g	85 mg
%9	%41	%50	-	-

PRESTAKETA

Mihi-arrain xerrak pasatu ogi arraila eta arbendol xehatutik. Jarri gastronorm erretiluetan eta erre labean 5 minutuz 180 °C-tan. Horrez gain, egin saltsa gurinarekin, oliba-olioarekin eta limoi-zukuarekin . Hornigai moduan, jarri patata egosia.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





OILARRA LABEAN

OILARRA LABEAN




OSAGAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Oilarra	250	200	Xerra
Baratxuria	1	1	Laminak
Olio	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 210 KALORIA				
KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
0,3 g	9 g	32,1 g	0 g	100 mg
%0	%39	%61	-	-

PRESTAKETA

Oilar-puskak oliba-oliotan igurtzi eta labe bizian jarri (180 °C) 5 eta 8 minutu bitartean. Horrez gain, zartagin batean baratxuria gorritzen jarri eta kolorea hartu baino lehen gaintetik perrexila bota eta arrainaren gaintetik botako dugu.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK



SALTXITXA FRESKOAK PUREAREKIN

SALTXITXA FRESKOAK PUREAREKIN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txerri-haragia	-	40	-
Txahal-giharra	-	80	-
Esne erdigaingabetua	-	60	-
Patata-purea	-	15	-
Olioa	-	5	-

BALIO NUTRITIBOA: 402 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
15,4 g	26,7 g	24,7 g	0,3 g	104,6 mg
%15	%60	%25	-	-

PRESTAKETA

Saltxitxak plaketan jarri eta labean eduki egin arte. Horrez gain, purea esnearekin eta patatarekin egin.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





ARKUMEA MENESTRAN


ARKUMEA MENESTRAN



OSAGIAIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Arkumea	250	180	Zatiak
Ilarrak	15	15	Izoztuak
Azenarioa	15	15	Brunoise
Porrua	15	10	Xehatua
Patata	30	30	Brunoise
Olioia	5	5	Oliba


BALIO NUTRITIBOA: 492 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
8,9 g	35,7 g	33,9 g	1,8 g	140,4 mg
%7	%65	%28	-	-



PRESTAKETA

Tipula, azenarioa eta porrua sueztitu. Ardo beltza eta haragi-salda apur bat bota. Gero birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Horrez gain, arkume puskei irina bota eta salteatu, kolorea har dezaten. Ondoren, saltsara bota bertan egos daitezen dadotan ebakitako azenarioarekin batera, samurra egon arte. Aurrez bereizita prestatutako ilarrak, patata, orburua eta zainzurien zurtoinak erantsi nahasturari.





TXAHAL ERREA


TXAHAL ERREA



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txahal-giharra	185	175	Xerrak
Barrengorriak	8	5	Xerratua
Azenarioa	7	5	Brunoise+Xehatua
Tipula	8	5	Xehatua
Porrúa	8	5	Xehatua
Olioá	5	5	Oliba


BALIO NUTRITIBOA: 363 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
2,4 g	24,3 g	33,6 g	0,5 g	122,5 mg
%3	%60	%37	-	-



PRESTAKETA

Tipula, porrua eta azenarioa sueztitzen jarri. Sueztituta dagoenean ura bota eta bost minutuz egosten utzi. Beste kazola batean, salteatu sorbalda ondo gorritu arte. Egina dagoenean, barazkiei bota eta utzi egosten egina egon arte. Eltzetik atera eta hozten utzi, xerratan ebakitzeko. Lortutako saltsa birrindu eta iragazki txinatarretik pasa. Xerratutako barrengorriak bota ondoren, sorbalda puskak saltsarekin napatu.





TXAHALA JARDINERA ERARA

TXAHALA JARDINERA ERARA



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txahal-giharra	210	170	Dadoak
Patata	45	15	Karratua
Ilarrak	25	8	Izoztua
Azenarioa	45	16	Brunoise+Xehatua
Barrengorriak	20	6	Xerrak
Tipula	35	5	Xehatua
Porrua	35	5	Xehatua
Olio	3	3	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 360 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
7,2 g	21,8 g	33,5 g	1,6 g	119 mg
%8	%55	%37	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Ebaki txahala dadotan eta galdarraztatu (ur irakinetan sartu hainbat minutuz), eta azkenik xukatu. Beste kazola batean, sueztitu tipula, porrua eta azenarioa, egina dagoenean gainetik irina bota eta haragi-saldarekin busti, irakinarazi, birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Segidan gehitu nahastura hori txahala gordeta genuen kazolan eta guztia irakiten jarri, erdi egosita dagoenean patata, ilarrak eta azenarioa gehituz. Azkenik, gehitu zainzuriak eta orburuak eta bota gainetik fin-fin ebakitako perrexila.






HARAGI-BOLAK



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txahal-giharra	100	100	Xehatua
Txerri-giharra	30	30	Xehatua
Baratzuria	1	1	Xehatu mehea
Arrautza	5	5	Irabiatu pasteurizatua
Perrexila	2	2	Xehatu mehea
Tipula	10	10	Xehatua
Barrengorriak	30	25	Laminatua
Olioia	7	7	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 360 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
2,8 g	27,5 g	25,3 g	9 g	116,8 mg
%3	%69	%28	-	-



PRESTAKETA

Haragia txikitu eta forma eman ondoren, bota gainetik irina eta frijitu. Beste kazola batean, olioia jarri dugu tipula, porrua eta azenarioa sueztitzeko. Guztia sueztituta dagoenean, salda ilunarekin busti, edo hori eduki ezean urarekin, birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Bota nahastura ontzi batera, ondoren haragi-bolak jarri eta 10 minutuz egosten utzi. Barrengorri xerratuak salteatu eta beste guztiarekin batera jarri.





MIHIA SALTSAN

MIHIA SALTSAN



OSAGIAIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Txahal-mihia	150	110	Xerra
Ilarrak	20	20	Izoztuak
Barrengorriak	25	25	Laminatua
Azenarioa	10	10	Xehatua
Porrua	15	10	Xehatua
Tipula	15	15	Xehatua
Olio	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 301 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
9 g	21,7 g	19,7 g	2,5 g	154 mg
%9	%65	%26	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Mihia ur askorekin egosi, hozten utzi eta ondoren zuritu. Zuritu eta hoztu ondoren xerratan ebakitzen da, pasa arrautza-irinetan eta pixka bat frijitu.

Beste kazola batean jarri olio a tipularekin, porruarekin eta azenarioarekin, eta utzi izerditzten (biguntzen) kolore iluna hartu arte. Ondoren, irin pixka bat eta haragi-salda bota, eta hamar minutuz egosten utzi. Birrintu eta txinatar iragazkitik pasa, eta bota jarraian arrautza-irinetan pasatutako mihiaren gainetik. Segidan, aurrez prestatutako ilarrak eta barrengorriak bota, eta 5 minutuz irakiten utzi.



UNTXIA SALTSAN

UNTXIA SALTSAN



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Untxia	200	180	Zatiak
Barrengorriak	30	25	Laurdenak
Piper berdea	10	10	Brunoise
Piper gorria	5	5	Brunoise
Ilarrak	5	5	Izoztuak
Olioa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 348 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
2,2 g	19,5 g	40,6 g	1,1 g	117 mg
%3	%50	%47	-	-

PRESTAKETA

Tipula, azenarioa eta porrua sueztitu, eta gero ardo beltz eta haragi-salda pixka batekin busti. Birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Beste kazola batean, bota irina untxi pusken gainetik eta salteatu, kolorea har dezaten eta bota saltsa gainetik, samurra egon arte bertan egosten utziz. Aurrez salteatu ditugun piper gorria eta barrengorriak gehitu azkenik.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK



TXERRI-SOLOMOA BERE ZUKUAN


TXERRI-SOLOMOA BERE ZUKUAN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Solomoa	170	150	Xerra
Lekak	2	20	Brunoise
Azenarioa	12	10	Brunoise
Barrengorriak	15	15	Xerratua
Tipula	28	25	Xehatua
Olioia	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 303 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
5,9 g	49,4 g	25,3 g	1,3 g	126 mg
%3	%46	%51	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Jarri solomo osoa erretzen 180 °C-tan ordubetez gutxi gorabehera. Txerri-haragiak ondo egina egon behar du, baina lehertu gabe.

Egin saltsa txerriaren zukuekin eta haragi-saldarekin. Zartaginean olioia jarri, irin pixka bat bota eta zukuak botako ditugu, ondoren 10 minutuz egosten utziz.





OILASKO ERREGOSIA BARRENGORRIEKIN

OILASKO ERREGOSIA BARRENGO- RRIEKIN




OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Oilaskoa	350	160	Laurdenak
Barrengorriak	70	35	Zuria
Olioia	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 249 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
1,4 g	12 g	33,6 g	1 g	139,2 mg
%3	%43	%54	-	-

PRESTAKETA

Oilaskoa salteatu eta gerorako gorde. Jarraian, sueztitu porrua, tipula eta azenarioa, eta bota haragi-salda. Birrintu eta txinatar iragazkitik pasa. Saltsan oilaskoa bota eta egin arte egosten utzi. Aurrez salteatutako barrengorriak botako ditugu ondoren.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK





OILASKO ERREA PATATA FRIJITUEKIN

OILASKO ERREA PATATA FRIJITUEKIN



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Oilaskoa	350	160	Laurdenak
Patata	80	75	Makilak
Olioia	12	12	Ekilorea

BALIO NUTRITIBOA: 263 KALORIA				
KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
8,5 g	44 g	56 g	0 g	156,6 mg
%13	%50	%37	-	-

PRESTAKETA

Oilasko osoa erre. Oilasko-izterra egina dagoenean labetik atera, laurdenetan ebaki eta saltsarekin eta patata frijituekin lagundu.



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK



OILASKO ERREA CHIP PATATA ETA BATATEKIN

OILASKO ERREA CHIP PATATA ETA BATATEKIN





OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Oilaskoa	250	180	Izterrak
Patata	15	15	Juliana
Batata	5	5	Juliana
Tipula	10	10	Juliana
Oltoa	10	10	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 340 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
8,9 g	17,8 g	36,6 g	0,9 g	152,3 mg
%11	%47	%43	-	-

PRESTAKETA

Erre oilaskoaren izterrak, kendu koipea eta zukuak berreskuratu. Ondoren, ebaki patatak eta batatak xerra finetan eta frijitu. Bukatutakoan, atera oilaskoa chip patatekin lagunduta.





OILASKO ERREA BARAZKIEKIN

OILASKO ERREA BARAZKIEKIN



OSAGIAIK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Oilaskoa	350	160	Laurdenak
Azenarioa	30	30	Baby
Lekak	30	30	Borobila
Barrengorriak	50	50	Osorik
Olioia	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 294 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
6,8 g	12,8 g	38 g	-	156,6 mg
9%	39%	52%	-	-



- KARBONO-HIDRATOAK
- LIPIDOAK
- PROTEINAK

PRESTAKETA

Erre oilaskoaren izterrak, kendu koipea eta saltsaren oinarria izango diren zukuak berreskuratu. Beste kazola batean barazkiak salteatu eta oilaskoari bota.





INDIOILAR ERREA HORNIGAIAREKIN

INDIOILAR ERREA HORNIGAIAREKIN



OSAGIAK	PISU GORDINA/g	PISU GARBIA/g	ZATIAREN FORMA
Indioilarra	150	150	Xerrak
Kalabazina	50	50	Brunoise
Berenjena	50	50	Brunoise
Piperra	30	30	Brunoise
Oltoa	5	5	Oliba

BALIO NUTRITIBOA: 382 KALORIA

KARBONO-HIDRAT.	LIPIDOAK	PROTEINAK	LANDARE-ZUNTZAK	KOLESTEROLA
3,9 g	19,5 g	49,5 g	1,9 g	139,5 mg
%7	%44	%49	-	-

PRESTAKETA

Indioilar-bularkia labean sartu 150 °C-tan, barrutik egina egon arte. Ez jarri oso tenperatu altua, zeren kanpotik lehorra gera baitaiteke. Egina dagoenean, hozten utzi eta xerratan ebaki. Saltsa egiteko indioilar-zukua erabiliko dugu sueztitutako porruarekin, tipularekin eta azenarioarekin batera. Salda pixka bat botako dugu beharko balitz. Birrindu eta txinatar iragazkitik pasa. Azkenik, napatu xerrak saltsarekin eta salteatutako barazkiak bota.



-  KARBONO-HIDRATOAK
-  LIPIDOAK
-  PROTEINAK